



ETXEKO ZAINTZAN ETA ARRETAN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO PROGRAMA

PROIEKTUAREN HELBURUAK:

- Enplegagarritasuna hobetzea, neurrira egindako ibilbide integralen bidez.
- Gaitasun soziolaboralak handitzea.
- Diagnostiko sozio-profesionalak eta Lan munduan sartzeko ibilbide pertsonalizatuak.
- Prestakuntza:
 - **Ingurunearen ezagutza. Enplegagarritasun-estrategiak** (12 ordu):
 - Gaitasun soziolaboralak.
 - Erantzukizuna lan-ingurunean.
 - Autonomia lanpostuan.
 - **Konpetentzia giltzarriak. Prestakuntza, 2 mailako profesionaltasun-ziurtagiriak ateratzeko sarbide-probetarako** (50 ordu):
 - Matematika-gaitasuna.
 - Gaztelaniaz komunikatzea.
 - **Zaintza pertsonalak eta zerbitzuak etxean** (60 ordu):
 - Zaintza pertsonalak (higienea eta garbitasuna, elikadura, laguntza psikosoziala...)
 - Garbiketa eta elikadura etxean (garbiketa, antolaketa, higiene-arauak...).

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- 20 eta 55 urte bitartekoa izatea, eskaera egiten denean.
- Eibarren erroldatuta egotea.
- Langabezian egon eta Lanbiden izena emanda egotea.
- DBHra arteko gehieneko kualifikazioa izatea, hura gainditu gabe.
- Gaztelaniaren ahozko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- Etxeko zaintzaren eta arretaren alorrean profesionalki garatu nahi izatea.

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2021eko azaroaren 8tik 19ra arte (biak barne).

TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua). Aldez aurretik **hitzordua** hartu behar da.
- **Elektronikoa:** Udalaren www.eibar.eus webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- “START” etxeko zaintzan eta arretan enplegarritasuna hobetzeko programan parte hartzeko eskabidea, behar bezala beteta. Orria eskuragarri dago PEGORAn eta www.eibar.eus. udal webgunean.
- Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- Curriculum vitae eguneratua.
- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).

PROGRAMAREN GARAPENA

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA
2. BANAKAKO ETA TALDEKO ORIENTAZIOA
 - Diagnostiko espezializatua.
 - Laneratzeko plan pertsonalizatua.
3. LANPOSTUARI DAGOKION TREBAKUNTZA PRAKTIKOA ENPRESETAN (20 ordu).
 - Ingurunearen ezagutza. Enplegarritasun-estrategiak.
 - Gaitasun giltzarriak. Prestakuntza, 2. Mailako profesionaltasun-ziurtagiriak ateratzeko sarbide-probetarako.
 - Zaintza pertsonalak eta zerbitzuak etxean.
4. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.